



ONDARROAKO UDALA



UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Batzarra:	Udalbatza eratzeko Udalbatzarra
Deialdia:	Lehena
Eguna:	2015-06-13
Ordua:	12:00 - 12:10
Tokia:	Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- 1.-JOSU ARRIZABALA BADIOLA.
- 2.-RAKEL ELU BENGOETXEA
- 3.- ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA
- 4.- VISIT BEIRO BADIOLA
- 5.- TXOMIN ETXABURU SOLABARRIETA
- 6.- ENERITZ BASURKO PAGOAGA
- 7.-UNAI BARRENETXEA GURRUTXAGA
- 8.-IÑAKI LERSUNDI ARRIZABALAGA
- 9.- MARIA DOLORES ETXANO VARELA
- 10.- MIREN AGURTZANE URRESTI AZPIRI
- 11.- ADRIAN OSA IBARLOZA
- 12.-AGURTZANE IRIONDO LEJARDI.
- 13.-IBON ARANBARRI ETXABURU.

Idazkaria: Garaine Ajuria Lasuen



Ondarroan, 2015ko ekainaren 13an, 12:00etan, bildu dira zinegotzi hautetsiak, Ondarroako Idazkariak eta Kontu-hartzaileak lagunduta, Udalbatza berria eratzeko helburuarekin 2015ko maiatzaren 24ko hauteskundeetan lortutako emaitzen argitan. Era horretara beteta geratu dira lege-xedapen hauek: Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195 eta 196. artikuluetan xedatutakoa eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 37. artikulua, Tokiko Entitateen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Araudia onartzekoa. Eta, hortaz, tokiko korporazioko kide guztiak berriztatu egingo dira.

1. Adin-mahaia eratzea

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. atalak dioenari jarraiki, zinegotzi-agiriak Idazkariari eman ondoren, bertaratutako zinegotzietatik zein den gazteena eta zein zaharrena aztertu da, bi zinegotzi horiek Adin-mahaia osa dezaten, udal-idazkariarekin batera.

Adin-mahaia era honetan eratzea:

Zinegotzirik helduen, Agurtzane Iriondo Lejardi, Mahiko presidentea izango dena.
Zinegotzirik gazteena, , Unai Barrenetxea Gurrutxaga.
Idazkaria, Garaine Ajuria Lasuen.

Agurtzane Iriondo Lejardi andreak hitza Hartu du hurrengoa adierazteko:

*"Egunon danoi,
berba batzuk bakarrik, esateko ohore bat dala nitzat, zarrena nazalako badabe, mahai hontako buru izatea.
Ohore bat ze gure herrixak, ondarruk, aukeratu gaitu bere ordezkari zuzenak, garbixak eta gardenak izateko eta neuri egokitu gazta lehenengo berbak esatea gure herriko izango dan alkati aukeratzeko osotu dogun mai honetan.
benetan ohore bat "erretolazan", etxebarrin jai, hazi eta hezi dan ondarrutarra nazen aldetik.
eskerrikasko ba, eta suberte on bat euki daigula guztiok, gure ordezkartzako gorabera guztietan"*

2.- Udala eratzea

Adineko mahaiak zinegotzi-egiaztagutunak aztertuta bai eta Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udaletxera bidalitako ziurtagiriak ere, zinegotzi-egiaztagutunak eta ziurtagiriak bat datozela baieztatuta.



Zinegotzien gehiengo osoa osoko bilkuran dagoela, adineko mahaiak Udala eratutzat jotzen du. Hona hemen, zinegotzien zerrenda:

- 1.-JOSU ARRIZABALA BADIOLA.
- 2.-RAKEL ELU BENGOETXEA
- 3.- ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA
- 4.- VISIT BEIRO BADIOLA
- 5.- TXOMIN ETXABURU SOLABARRIETA
- 6.- ENERITZ BASURKO PAGOAGA
- 7.-UNAI BARRENETXEA GURRUTXAGA
- 8.-IÑAKI LERSUNDI ARRIZABALAGA
- 9.- MARIA DOLORES ETXANO VARELA
- 10.- MIREN AGURTZANE URRESTI AZPIRI
- 11.- ADRIAN OSA IBARLOZA
- 12.-AGURTZANE IRIONDO LEJARDI.
- 13.-IBON ARANBARRI ETXABURU.

Idazkariak, jarraian, hiru agiri hauek aurkeztu dizkio Udalbatzari, zinegotziek azter ditzaten:

- a) kutzako kontaketaren agiria;
- b) Udalak dirutan nahiz baloretan dituen izakinen egiaztagiriak
- c) udal-ondarearen inbentarioa.

3.- Alkatea aukeratzea.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. atalari jarraiki, Adin-mahaiak alkatea aukeratzeko baldintzak gogorarazi ditu:

- 1.-Zinegotzi diren zerrendaburuak dira hautagai.
- 2.-Lehen bozketan, zinegotzi guztien gehiengo osoa lortzen duena izango da alkate.
- 3.-Horrela ez balitz, udal hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako buru den zinegotzia izango da alkate.

Ondoan aipaturiko batzarkideek aldarrikatu dira presidente izateko:

-JOSU ARRIZABALA BADIOLA jauna.

- MARIA DOLORES ETXANO VARELA andrea.

Bozketari ekin zaio eta zenbatu dira emandako botoak .Hona hemen, bozketaren emaitza:

- Josu Arrizabalaga Badiola jaunaren aldeko botoak:8
- M. Dolorea Etxano Varela andrearen aldeko botoak:5



Horrenbestez, bozketaren emaitza ikusita, zinegotzi kopurua 13 denez eta Aldeko 8 botoak gehiengo absolutua denez, Josu Arrizabalaga Badiola jauna E.H. Bilduko zerrendaburua, izendatzen du mahaiak Udalbatzako Alkate-Udalburu.

Ondoren, Josu Arrizabalaga Badiola jaunak onartu egin du alkate izatea. Adin-mahaiko presidenteak eman dizkio karguari dagozkion ezaugarriak eta, handik aurrera, Josu Arrizabalaga Badiola jauna da gelako presidentea eta, horrenbestez, Adin-Mahaia desegin da. Segidan, Alkate jaunak hitza hartu du hurrengo esateko:

"Gaur ohore handi bat da nitzako Ondarruko Alkati ixentata ixati, baine kargo hau ez dot nik bakarrik aurrea erungo baizik eta konpartitute ixango da Udala osotzen douen guztion artin.

Danok ixan bigaz Alkate.

Aurretiaz eskerrak emon biarra dakau, aurreko korporasinoiai eta gaur arte Alkate ixan dan Argiai.

Ezin besteku ixangou eta kontaten dou gauzak alhaldanik eta hobetuen etxeko danon laguntziaz , baitxe oposizinoitxik egongo dizen kontrolak eta aportasinoik eta udal tekniko eta langilin biarraz.

E. H. Bildukuk erabat barrizutako taldi osotzen dou. Gaur bertan hasiko gaz biarrin herriko zereginetan, gure kidik ein daben bidetik eta ez gaz ahaztuko guretzako ardatzak dizen beste helburo batzugin, askoren artin:

-- Eraldaketa sozialaz, ekonomixi pertsonan zerbitzura eta ez pertsonak, ekonomixin zerbitzura.

-- Demokrasi parte hartzailli sustatu eta bultsatukou gai berezi-garrantsixetan, billera-batzar zabal espeziifikuk einez eta debatitzaillik.

-- Herri bat gazelako burrutakou gure herrixan erabakitzeko eskubidin alde. Ekainaren 21n pauso bat emoteku aukeri dakau eta dei zabal bat etxendotzau herritar guztiai Bilbon eta beste hiriburuetan parte hartzea.

-- Lehen bai lehen nahi dou lortu gure herriko konbibentzixa normalizau bat eta horretako beste gauza batzun artin lortu bir dou, nahi daben guztik bertan bixitxea eta gure herriko euskal iheslari eta preso politikuk dizen Aitzol, Asier, Eneko, Ibon, Kemen, Kirru, Urtza, Xabi, Zunbeltz eta iheslaxak, guaz bir douz eta esko zabalik besarkatzeko desiaten gaz.

Gora Ondarru "

Segidan, Alkate jaunak hitza eman die udalean ordezkatuta dauden hautagaien ordezkariiei, eta Maria Dolores Etxano andrea hitza hartu du hurrengo adierazteko:

"Zorionak Josu eta suerte ona datorren lau urterako.

Datozan, legealdian, lau urteetan, EAJ-PNVko 5 zinegotzien taldeak herriaren alde behar egiteko konpromisoa hartu dou, ilusinoagaz eta arduragaz, eta errezpetoagaz, oposizinoan. Oposizino konstruktiboa egingo dogu.

Ondarroa hobea goa lortzeko, hauteskunde kanpainan erabili genduan esaldia gauzatuz, Bizi, Behar egin eta Disfrutateko Ondarroa izateko.

Aitatutako oposizino eraikitzailea egiteko, honetan oinarrituko gara:

- *Udal politiken ardatz, herritarrak izatea, emakumeak eta gizonak, bardintasunean, emakumeak kontutan hartzen daben politikak, politika neutrorik ez dagoelako, eta be bai, alkartasunean, kritikan, parte hartzean, justizian, jasagarritasunan, euskeran eta aniztasunean oinarritutako Ondarru lortzeko.*
- *Udalean, Ondarrurako eta Ondarrutarrentzat garrantzitsuak diren proiektuak aurrera eroateko akordioak lortzea. Ondarrutarron arteko akordio zabalak lortu eta premiei era bateratuan erantzunak emoteko.*
- *Eta Ondarrurako garrantzitsuak diren proiektuak aurrera eroateko, gainontzeko erakundeekin koordinatzea.*
- *Era aktiboan lan egin eta parte hartuko dogu, informazioa jaso eta ekarpenak eta proposamenak egingo doguz, Udalaren erantzunak osoagoak izateko.*

Ez daukagu hurrengoko lau urteetan lan gitxi, ia lorten dogun, bakoitzak geure arduretatik, Ondarroa eta Ondarrutarran bizitza hobetzea."

Horrenbestez Alkate jaunka hitza eman die herritarrei eta adieazpen gehiagorik ez dagoenez, bilkura amaiturik, agiri hau egiten dut lehendakariaren oniritziarekin, esandakoa eta erabakitakoa jasotzeko.

IDAZKARIA

ALKATEA

